

ZARAUTZ

Uztailak 1-7

7-8 urte

Euskara

Uztailak 1	<i>Bidaiariak gurutzaontzira!</i> Ongi etorriak Igerain aterpetxera! Udalekuetako 7 egunak eraikin handi batean biziko ditugu. Bertan hainbat jolastoki desberdin topatuko ditugu: Gimnasioa, saskibaloia kantxa, zelai handiak eta beste hainbat areto. Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Arabatik datozen haur eta begirale guztiok biltzen garenean, elkar ezagutzeko aukera izango dugu. Lehen pausoa lagun berriak egiteko! Udalekuetan zehar Zarautzeko gurutzaontzian bidaiatzen egongo gara eta abentura asko bizi. Noizbait egon al zarete gurutzaontzi batean? Zein lekuetara bidaiatuko dugu?
Uztailak 2	Gaurko egunean Erromara bidaiatuko dugu, baino ez gaur egungo Erromara... Antzinako erromatar inperiora baizik! Julio Cesar eta bere soldaduak ezagutu eta beraiekin lehiatu beharko dugu. Gure bidaiariak gogor borrokatuko dute!
Uztailak 3	Udalekuak martxa hartu dute! Jolastu eta jolastu ari gara gelditu gabe! Gaurkoan gurutzaontzian larrialdi egoera ugari simulatu eta jolasean ibiliko gara. Eskerrak gure bidaiarien laguntza izan dugula! Itxaron... Horiek ez al dira piratak?
Uztailak 4	Udalekuen erdira iritsi gara! Gaurkoan dinamika pixka bat aldatuko dugu. Ibilaldia izango dugu aterpetxetik Getariara. Aterpetxetik "piknik"-a prestatuko digute bidetik jan dezagun. Ibilaldian zehar naufragoak izango gara eta ontzigile baten bila ibiliko gara. Lortuko al dugu Getariako portuan ontzigilerik aurkitzea?
Uztailak 5	Ontzigileak aurkitu ditugu eta prest daude guri ontzi berriak eraikitzeke! Hala ere, ez dirudi erraza izango denik... baldintza ugari bete beharko ditugu ontziak lortu ahal izateko, ez baitira merkeak erosteko. Esfortzu handia egingo dugu berriz nabigatzeko aukera izateko!
Uztailak 6	Udalekuen amaiera iristen ari da eta gurutzaontziko abentura zirraragarri oni amaiera eman behar diogu. Lortu dugu azkenean gurutzaontzi berri bat! Denok batera bidaiaren amaierari bukaera polita emango diogu dantzan eta jolasean.
Uztailak 7	Igerain aterpetxean momentu polit asko bizi ditugu. Hemen sortutako bizipen berriak, lagun berriak eta oroitzapen onak bilduma batean bilduko ditugu. Horrela, urte batzuk pasa ondoren, 2024ko udalekuetan izandako oroitzapen guztiak idatziak izango ditugu. Motxilak prest eta autobusa atean, gero arte Igerain! Hurrengora arte Zarautz!

\***Oharra:** euria egiten duen egunetarako beste ekintza batzuk programatu ditugu.